

SORTU

abertzale eta ezkertiarren erreferente politikoa izango da Ordizian

SORTU alderdi politiko berria eratzeko prozesua burututa, Ordiziako arduradunak aukeratu dira, eta herriko militante eta sortzaileak antolatzen hasi dira. Alderdi berriaren asmo eta erronkei buruz hitz egiteko herriko zuzendaritza elkarrizketatu dugu.



Herriko mahaiko Julen Agirre, Amaia Iztueta eta Axier Irastortza

1.- SORTU Batasuna al da?

Ez. Ezker abertzalearen ondare, borroka eta helburu historikoak jasotzen ditu, baina ez da Batasuna. Alderdi berria da.

2.- Zertan da berrikuntza hori?

Ezker abertzalea EH independente eta sozialista eraikitze joia zen, eta helburu horietan aurreratzeko orain erabaki dugu masa borroka, instituzionala eta ideologikoa berrindartzea, eraginkorrak izateko estrategia eta tresna berriak antolatzea. Garrantzitsuena da mentalitate eta estrategia aldaketa eman dugula iraultza demokratikoa bultzatzeko eta indar metaketaren bidez bloke nazionala indartzeko.

3.- Baina SORTUren batzarretan ezker abertzaleko "betiko" kideek hartu dute parte.

Bai, baina baita orain artean ezker abertzalearen batzarretara joaten ez zen hainbat kide ere. Ezker abertzaleak jasan duen jazarpen eta ilegaltzaioak urtetan zaildu egin du herritarrek beldurrik gabe eta modu natural batean hurbiltzea, nahiz eta gure helburuekin bat egin. Orain, SORTUren erronka da Ordiziako ezkertiar eta independentistak biltzea eta aukera ematea maila ezberdinetan parte

hartzeko: sortukide moduan, militante moduan, batzarretan parte hartzen duen oinarri sozial moduan...

4.- Eta alderdiei dagokienean, nolako harremanak izango ditu SORTUk Ordizian gainerako alderdiekin?

Momentuz Bildu osatzen duten alderdiekin harreman estuak ditugu. EArekin eta Aralarrekin herrian, eta Alternatibarekin eskualde mailan. Aliantza estrategikoei eutsi egingo diegu. PSE-EE eta EAJ/PNVrekin, jakina, BILDUK baditu harremanak Udal kudeaketaren arloan. Espero dugu etorkizunean SORTU bezala ere izatea.

5.- Zerk zailtzen ditu harreman horiek?

Euskal Herriaren eta herritarron eskubideen ukazioak eragindako gatazka da bizi duguna. Beraz, gatazka politikoa. Eta Ordiziak modu berezi eta bortitzean jasan izan ditu gatazkaren ondorioak. 1936tik hasita, frankismoan eta egun ere askotariko biolentzia sufritu izan dugu eta sufritzen dugu. Herriko seme alabak modu bateko zein besteko biktimak izan gara. Eta ardura politikoa izan dituztenen arteko harremanak eta adostasunak askotan zailak izan dira.

6.- Eta orain, aukera ikusten duzue harreman horiek normalizatzeko?

Ireki dugun prozesu demokratikoak harreman horiek erraztu egingo ditu. Baina ezin dugu ahaztu gure ardura politikoa gatazka erroterara joz gainditzea dela. Bizikidetzat demokratikoa beharko dugu, konponbideak adostu, ardurak konpartitu... Baina guk ez diogu inori eskatzen alda dezala aipatu ditugun gertaerei buruzko bere ikuspegia eta bere helburu politikoa. Ez diezagutela guri ere halakorik eskatu.

7.- Ordiziaren garapen eta beharrei dagokienean, ba al da PNV eta PSE-rekin adostasun punturik?

Denok diogu zerbitzu publikoak eta ongizatekoak hobetu behar direla, krisiari aurre egin behar zaiola, enplegua eta merkataritza sustatu... Baina praktikan alderdikieriaz jokatzeko dute, helburua dutelako BILDUren gobernua desgastatzea. Nola ulertu bestela PNV eta PSE birziklatzearen alde agertu eta aldi berean errauskailua defendatzea? Zergatik ez dute enplegua sustatzen duen eta ongizate zerbitzuak hobetzen dituen Udal aurrekontua onartu? PNVren eta PSEn lehentasunetan ez dago BILDUrekin herriaren etorkizunari buruzko hausnarketa estrategikoa konpartitzea.

8.- Borroka instituzionalaz gain, masa borroka eta borroka ideologikoa izango dira SORTUren tresna nagusienak. Nola ulertu behar dira?

Masa borrokaz ari garenean, herri mugimenduaz ari gara. SORTUk ez du inolako herri mugimendurik ordezkatuko. Herri mugimenduak jendartearen kezka eta beharren ondorio dira. Gu-retzat alderdietatik kanpora antolatutako herritarren lana funtsezkoa da, eta elkarlana bilatuko dugu. Kalea eta erakundeak uztartuz eraiki nahi dugu Ordizia. Borroka ideologikoari dagokienean, herritarren artean nagusiak dira Euskal Herriaren soberaniaren aldeko eta bestelako eredu sozio-ekonomiko baten aldeko aldarrikapenak. Artikulatu eta antolatu egin behar dira, kaleari eta instituzioetan, eraginkorrak izateko.

9.- Nola parte har lezake ordiziar batek SORTUen?

Bi parte hartze modu izango dira. Batetik militantzia; edozein organotan parte hartzen duena izango da militante. Eta bestetik oinarri soziala. Ezkertiar eta independentista guztiak izango dute maila batean edo bestean gurekin elkarlanean aritzeko aukera, eta erakunde berriaren funtzionamendua erabat demokratiko eta gardena

izango da. Batzarrek izango dutenez azken hitza, funtsezkoa izango da Ordiziako Herri Batzarra indartzea. Batzar horietan parte hartzea gonbidatzen ditugu ordiziarrek.

10.- Bizi dugun momentu politikoan, zeintzuk izango dira SORTUren lehen-tasunak?

SORTUk begi bat jarrita du bere azken helburu estrategikoetan, EH independente, sozialista, euskaldun eta feminista. Baina beste begia egunerokotasunean jarrita du. Eraginkorrak izan nahi dugu eguneroko praktika politikoan. Batetik, euskal nazioa eraikitzeari begira, herrietan autodeterminazioaren, euskararen, euskal kulturaren... aldeko ekimenak bultzatuz. Bestetik, eredu soziala aldatzeari begira, krisiari aurre eginez, zerbitzu sozialak babestuz, eredu alternatiboak eraikiz (esaterako zaborren auzian)... Azkenik, gatazkaren konponbideari begira Aieteko Akordio bultzatuko dugu. Azken arlo honetan, konponbide demokratikoaren bidean funtsezkoa da presoen eskubideak babestea eta etxeratzeko neurriak aplikatzen hastea.

sortu

• **SORTU** es el partido que recogiendo la lucha histórica de Euskal Herria por sus derechos nacionales y por la transformación social, pretende ser el referente político de los y las abertzales y gentes de izquierda de EH.

•••
• Son posibles **diferentes niveles de participación** y compromiso, desde el y la militante, al únicamente votante, pasando por los y las que consideramos nuestra base social que deseamos participen en nuestras asambleas.

•••
• **Nuestros objetivos** principales tienen relación con la democracia radical. Por una parte, nuestro funcionamiento será totalmente transparente y participativo, las asambleas serán los principales órganos de decisión. Y por otra, nuestro objetivo es profundizar en la verdadera democracia y garantizar todos los derechos.

•••
• **La sociedad civil** organizada en las asociaciones populares y las instituciones gestionadas de manera radicalmente democrática, deben de constituir un contrapoder real a las élites políticas y económicas.

•••
• **De momento** ni en las prioridades del PNV, ni en las del PSE-EE, encontramos interés en compartir una reflexión estratégica ni a nivel nacional ni en Ordizia. Esperamos que en un futuro cercano sea posible.

•••
• **BILDU y EH Bildu** son los referentes institucionales y electorales en los que seguiremos participando.